



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

DIBERTSITATE FUNTZIONALA HAUR LITERATURAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Estébanez Calzada, Sara.

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier.

Gazteizen, 2019ko ekainaren 3an

AURKIBIDEA

DIBERTSITATE FUNTZIONALA HAUR LITERATURAN	4
MARKO TEORIKOA	5
1. HAUR LITERATURAREN INGURUAN	5
1.1. Haur Literatura definitzen:	5
1.2. Haur Literaturaren funtzioak:	6
1.3. Baloreen transmisioa Literaturaren bidez	8
1.4. Gai tabuak Haur Literaturan:	9
1.5. Urritasunak Haur Literaturan:	11
1.6. Urritasunak lantzearen garrantzia Haur Literaturan	13
1.7. Urritasunak ulertzeko modua	14
1.8. Urritasunak gaur egun	16
IKERKETA:	20
2.1. METODOLOGIA:.....	20
A CORPUSA AUKERATZEKO KRITERIOA:	21
B CORPUSA AUKERATZEKO KRITERIOA.....	21
EMAITZAK	22
A CORPUSEKO DATUAK:	22
A CORPUSEKO ONDORIOAK:	23
B CORPUSEKO DATUAK ETA ONDORIOAK:	24
ONDORIO OROKORRAK	32
BIBLIOGRAFIA	35
ERANSKINAK	39
1GO ERANSKINA: A CORPUSA	39
2. ERANSKINA: A CORPUSA AZTERTZEKO FITXA:	41
3.ERANSKINA: DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN INGURUAN JARDUN DUTEN AUTOREEN LANAK:	42
4. ERANSKINA: B CORPUSA:	43
5. ERANSKINA: B CORPUSA AZTERTZEKO FITXA	45

6. ERANSKINA: A CORPUSAREN FITXEN ANALISIA	46
7. ERANSKINA: B CORPUSAREN FITXEN ANALISIA	57

DIBERTSITATE FUNTZIONALA HAUR LITERATURAN

Sara Estébanez Calzada

UPV/EHU

Dibertsitate funtzionala egungo gizartearen parte den neurrian, lan honen bidez, honek Haur eta Gazte Literaturan duen lekua aztertu da, bai eta honen trataera ere. Horretarako, dibertsitate funtzionala lantzen duten irakurgai espezifikoak aztertzeaz gain, zoriz hautatutako liburuak ere aztertu dira, bertan, dibertsitate funtzionalaren presentzia eta hura normaltasunez jorratzeko joera aztertzeko asmoz. Dibertsitate funtzionalak literaturan lekua hartzen hasi den arren, oraindik, honen presentzia errealitatearekin alderatuz gero nahiko txikia da. Hala ere, hurrengo orrietan trataera egokia duten zenbait irakurgai aurkeztu eta lantzen dira.

Haur Literatura, ipuina, dibertsitate funtzionala, trataera

La diversidad funcional forma parte de nuestra sociedad, y mediante este trabajo se ha querido analizar su papel y tratamiento en la Literatura Infantil y Juvenil. Para eso, se han analizado lecturas específicas sobre la diversidad funcional y otros tantos libros elegidos al azar para constatar la presencia de la diversidad funcional y su tratamiento. Por mucho que la diversidad funcional esté haciéndose un sitio en la literatura, si lo contrastamos con la realidad, sigue teniendo una presencia mínima. Aún así, en las próximas hojas, se presentan y analizan ciertas lecturas en las que el tema es tratado de una manera adecuada.

Literatura Infantil, cuento, diversidad funcional, tratamiento

MARKO TEORIKOA

1. HAUR LITERATURAREN INGURUAN

1.1. Haur Literatura definitzen:

2005. urteko ikerketa baten ostean, euskal liburugintzaren %20-25aren inguruan dagoela HGL produkzioa baieztatu zen: %50a itzulpenak, %30a berrargitalpenak eta %20 inguru sorkuntza zirelarik. Honi esker, ezagutarazi zen urtero 60-70 idazlan berri inguru sortzen direla euskaraz (Etxaniz, 2005: 95).

Baina, zeri deritzogu Haur eta Gazte Literatura? Saiakera ugari dauden arren, ez da batere erraza kontzeptua era zehatz batean laburbiltzea.

Haurtzaroa da gizakion bizitzan aldaketa handiena gertatzen den garaia, gure esperientzia eta bizipena garai txiki batean biderkatu, hirukoiztu egiten da, munduaz dugun ikuspegia aldatu, gure espektatibak handitu, ezberdindu, aldatu, eta esperientzia, baita literarioa ere, gehitu. Haurra zein gaztea garatze prozesu batean guztiz sarturik dagoen gizakia da, etengabeko aldaketan eta ezaugarri hauek zaildu egiten dute Haur eta Gazte Literaturaren kontzeptua zehaztea, beraien definizioa zaila den neurrian (Etxaniz in Mulero & Lasarte, 2015: 122).

Rojasek (1990: 86) Literatura, berriz, modu honetan definitzen du: “literatura infantil será aquella que tenga el estatus de “lo literario”: pero que, además, sea adecuada para los niños y, desde luego, lo que ese considere adecuado o no, dependerá del concepto de infantil adumido”.

Literaturan elementu guztien garrantzia nabarmentzekoa da, izan ere elementu guztiek lanaren zentzua lortzen eragina dute. Elementu bakoitzak esanahia sortzeko bide horretan eginkizun bat du. Literatura lanek errealitatea islatzen dute, egunerokotasunetik egoerak hartuz eta errepresentatuz. Errealitateko islatzeko modu horretan continuum bat

antzean daitezke. Zenbait lanek errealitatearen antza handia dute, eta, beste askotan, ez da hain nabarmena errealitatearekin duten lotura (Rojas, 1990: 85).

Rojasek (1990: 87) dioten moduan “el libro infantil debe ser formativo, informativo y recreativo. Es el encargado de habituar al niño a la lectura. Le informa sobre diversas concepciones de mundo, sobre otros contextos, sobre otras costumbres”.

Bestalde, irakurlearen autokontzeptuak paper garrantzitsu bat du Haur Literaturan. Izan ere, haur guztiek onartuak sentitzeko beharra dute, haien ingurugiroan leku bat aurkitzeko beharra eta honen kulturaren parte hartzekoa ere. Literaturak, alde aurretik aipatu bezala, elkarbizitza mota oso anitzak eskaintzen ditu, eta, honi esker, ohitura, tradizio, sinesmen eta balore desberdinak transmititzen dira, haurren integrazioan laguntzen gizarte eta garaiaren arabera (Morón, 2010: 3).

Gainera haur literaturan mutur desberdinetan topa ditzakegun gai mota desberdinak eskura ditzakegu. Lan literarioen balore handien artean irakurleari garrantzi handiko kontzeptu zein gaiak aurkeztea da, honen bidez pentsamendu kritikoa zein hausnartze gaitasuna garatzeko bidea irekiz (Morón, 2010: 1). Etxanizen (2005: 96) hitzetan, “barietateari dagokionez, hots, korrante ezberdinak eta estilo ezberdinei buruz, hemen bariedade handia dugu (...) une honetan edozein gairi buruz idazten da euskaraz”. Irakurketa informazio desberdinak jasotzeko baliabide nagusienetarikoa da, ezagutzeko eta ikasteko (Pomares-Puig, 2014: 819)

1.2. Haur Literaturaren funtzioak:

Historian zehar Haur Literaturaren inguruko ikuspuntu desberdinak egon dira. Jarraian, Colomerren (in Mulero & Lasarte, 2015: 124) banaketa aurkeztuko dugu. Literaturaren didaktikan ipuinetan hiru funtzio desberdin bereiz daitezke: funtzioa praktikoa, didaktikoa eta estetikoa.

Funtzio praktikoari dagokionez, ipuina pentsatzen, pertsona izaten eta bizikidetzatza irakasteko baliabide gisa aurkezten da. Izan ere, irakurlea, irakurzaian zehar agertzen diren sentimendu, jarrera zein pertsonaiekin identifikatzeko aukera izango du. Horrez gain, fantasian murgiltzeko, sormena lantzeko eta idazleak transmititu nahi dituen balioen esanahia ulertzen laguntzen dute.

Funtzio didaktikoari erreferentzia egitean, berriz, ipuinak irakasteko tresna moduan aurkezten dira. Hain zuzen ere, narrazioek dituzten ezaugarri linguistikoen ondorioz, oso aproposak dira gogoratzeko eta, ezaugarri ez-linguistikoen eta hiztegiaren laguntzaren bidez, ezezaguna den hiztegia ulergarria bilakatzeko aukera ematen dute.

Azkenik, *funtzioa estetiko*a aipatzean, haurrari zuzendutako artelan gisa definitu dezakegu. Testuak eta irudiak jarduera ludikoak eta artistikoak integratzen dituzte (Amorós in Mulero & Lasarte, 2015: 125) horren eraginez, haurrengan atsegin estetikoak sortzen du.

Moronen (2010: 5) ustetan, haurrei zuzendutako literaturak, batez ere, plazerra sorrarazi behar du, bai eta, autokontzeptuan zein inguratzen duen munduaren ulermenean lagundu behar du. Funtzio hau betetzea lortzen den neurrian, ziurrenik, lan literarioengan gustua era natural batean sortuko da.

Cerrillok eta Sánchezek (in Hoyos, 2015: 87) honakoa baieztatzen dute Haur Literaturaren eginkizunaren inguruan:

La Literatura Infantil se ha resentido en exceso de una necesidad “oficial” de comunicar determinadas enseñanzas, moralidades o doctrinas (...) se afirmaba con rotundidad que en el libro infantil no era suficiente la calidad literaria, ya que era consustancial al mismo que respondiera a otras obligaciones.

Etxanizek (2005: 96) ere, honen inguruko iritzia elkarbanatu zuen:

“(…) noraino hezi-nahiak estaltzen edo estutzen duen balio literarioa. Azken urteotan zehar lerroak direla eta, literaturaren erabilera didaktikoa dela eta, eskolaren presioa dela eta, gero eta gehiagotan hitz egiten da haur eta gazte literatura liburuaren balio didaktikoaz, sarritan balio estetikoaz baztertzen delarik”.

Hala ere, euskaraz argitaratutako lan literarioen balio estetikoaren kalitatea nabarmena da, hizkera zaindua, lexikoa aukeratua eta estilo eta erregistro aproposak erabiliz (Etxaniz, 2005: 96). Colomerrek (in Etxaniz, 1999: 6), berriz, bi funtzioek, literarioak eta hezitzaileak, izan behar duten oreka aipatzen du. Zenbait lanetan alderdi literarioaren atzean testuaren benetako helburu hezitzailea indartsu agertzen da.

1.3 Baloreen transmisioa Literaturaren bidez

Balore moduan ulertzen dira

Creencias básicas a través de las cuales interpretamos el mundo y damos significado a los acontecimientos e, incluso, a nuestra propia existencia. Forman parte de nuestra cultura subjetiva y hemos de considerarlos como realidades dinámicas, sometidas a cambios condicionados en su manifestación por el espacio y el tiempo” (Yubero et. al in Etxaniz, 2008: 99).

70eko hamarkadaren hasieran errealismo kritikoaren sorrerarekin batera, balio literario handiko lanak eskaintzeaz gain haurren formakuntzan lagunduko duten lanak ere argitaratu ziren (Yubero et. al. in Etxaniz, 2008: 99). Strausfeldek (1989: 84) azaltzen duen moduan: “padres y profesores pidieron libros con nuevos contenidos para los chicos, para que desde pequeños llegasen a familiarizarse con nuestro planeta”. Jorratutako gaien artean Strausfeldek ondorengoak azpimarratzen ditu:

Problemas y conflictos en el mundo laboral, político, social, comonomico; había que iniciarles en otro tipo de convivencias, en las relaciones antiautoritarias (...) ser capaces de afrontar problemas que ahora se convertían en cotidianos: separación o divorcio, la madre que trabaja y deja al niño solo en casa, la muerte, el abandono, y muchos otros que aparecían por doquier (Strausfeld, 1989: 84).

Sousak, berriz, (2008: 2) modelo tradizionalak eskaintzen dituen baloreen eta berrien arteko bereizketa egiten du. Balore tradizionalak indibidualismo, obedientzia, elizaren baloreak, gizonezkoen nagusitasunaren ingurukoak diren bitartean, modelo berriek elkartasuna, berdintasuna, askatasuna, tolerantzia, desberdina den horrekiko errespetuak... lekua hartzen dute. Literaturak bere narrazioen bidez zenbait nozio eta kontzeptu transmititzen ditu, irakurlearen bizitzan beharrezkoak izango diren horiek. Honela laburbiltzen du Literatura: “es un agente formador por excelencia. Ayuda a formar lectores críticos sin que el acto de leer deje de ser un instrumento de emoción, diversión, placer” (Sousa, 2008: 4). Sousak balore tradizionalak eta berriak bereizten dituen arren, Etxanizek (2011: 75) Literaturak, orokorrean, nabarmentzen dituen baloreak egungo gizartekoak baina tradizionalagoak direla baieztatzen du.

1.4. Gai tabuak Haur Literaturan:


Graciela Montesek (inViviana, 2012: 107) dioen moduan: “La realidad despojada de un plumazo de todo lo denso, matizado, tenso, dramático, contradictorio, absurdo, doloroso: de todo lo que pudiera hacer brotar las dudas y cuestionamientos”. Gaur egun, badira zenbait lan zeinak haurren errealitatea islatzen duten, eskolan, kalean... Sufritzen duten pertsonaien istorioak ezagutarazten dira, amaiera zoriontsuen beharrik gabe, amaiera latzekin... Desberdina den horrek bihurtzen du narrazioa aztoragarri (Viviana, 2012: 109). Azken aldiko literatura merkatuan, gizartearen konplexutasunaz jarduten duten autoreen obren hazkundera nabarmendu dezakegu (Hoster & Castilla, 2003: 184).



1.irudia: Mallko y papá (Gusti, 2014)

Istorioen amaierak arazoaren onarpenera gerturatu ditu irakurleak, izan ere, zenbaitetan, korapiloa pertsonaiaren barnealdetik dator. Zaila izaten da kasu horietan

arazoa ezabatuko duen amaiera zoriontsu bat topatzea. Hori dela eta amaiera “zoriontsuaren” bertsio bat bilatzera bultzatu ditu idazleak: pertsonaiaren onarpena ulertarazten zaio irakurleari, arazoari aurre egiteko bideak eskuratzen dituelarik. Honi esker, hurrei batez ere, zenbait arazoren soluzio ezaz hausnartzeko tarteak eskaintzen zaie, bizitzaren parte direla azpimarratuz (Colomer, 2005: 209).



2.irudia: Amonatxoak (Pita & Afonso, 2009)

Beraz, honen inguruan aritzeak eskaintzen dituen onurak aintzat hartuz, gomendagarria da ikasleek eskuragarri dituzten irakurgaietan mota honetakoak barneratzea. Vivianak (2012: 110) dioen moduan, “¿Y si comenzamos a balbucear acerca de eso?”

HGLak atea ireki die pixkanaka ezkutuan egon diren gai tabuei, haien artean; sexualitatea, heriotza, lotsa, bakardadea, urritasunak... (Viviana, 2012: 110), orain arte desegokitzat hartu direnak (Hoster & Castilla, 2003: 185). Haurren errealitatea ez da gurasoen interesetik sortzen, errealitatea ezezagun horretatik eraikitzen da, aztoragarria den horretatik. Errealitatea zentsuratzeak edo isilarazteak konponbiderako bidea oztopatzen du (Viviana, 2012: 110).

Hablar de eso, entendiendo el eso-tabú, tal vez evitaría que muchos niños y niñas sigan mirando y sintiendo lo diferente con recelo, temor, sin poder asignarles algún nombre que los signifique, en un aporte a la construcción de nuevas representaciones y al otorgamiento de otros sentidos. Hablemos (Viviana, 2012: 111).

1.5. Urritasunak Haur Literaturan:


Dibertsitate funtzionala duten haur edo gazteek identifikatuak, errepresentatuak eta baloratuak sentiaraziko dituzten baliabideen beharra dute (Pomares-Puig, 2014: 815) eta horretan haur literaturak egin dezake bere ekarpena.

Urritasunak dituzten pertsonaiak baliabide literario moduan erabiliak izan diran historian zehar. Asko izan diren arren, eskaini zaien trataera momentuko gizartearen eta kulturaren arabera izan da. Horren adibide dira *El Lazarillo de Tormes*eko itsua, *Marianela*, Benito Pérez Galdós en *Misericordia* edo Valle Inclánen *Flor de Santidad* Trataerari dagokionez, hobekuntza nabarmena aipatu daiteke, gizarteak jasan duen jarrera aldaketaren isla dena (Pomares-Puig, 2014: 816). Ezgaitasunaren kontzeptua, urteetan zehar, jarrera gutxiesgarri batetik errespetuzko batera igaro da (Cano de la Cuerda, Collado-Vazquez & Jiménez-Antona, 2013: 167). Hayes-el (in Pardo, 2017: 6) urritasunak barnebiltzen dituzten ipuinen kalitatea ondorengoarekin laburbiltzen du: “Although books about people with disabilities are becoming more popular, the quality is questionable”.

Zailtasunak dituzten pertsonaien irudia argi azaltzen du Grande Estebanek (in Pardo, 2017: 5):

Las minusvalías son un castigo por alguna culpa. O se compensan con unas cualidades excepcionales. Se perpetúa la noción de que las personas con minusvalías son ‘normales’ (...) se puede observar la minusvalía como castigo o atributo negativo de los personajes, así como su compensación mediante cualidades o sucesos extraordinarios.

Elbarritasuna barneratzen dituzten ipuinak bi motatakoak izan daitezke. Hurrengo koadroan ipuin hauen sailkapena azaltzen da.



Grafiko 1: Elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinak (Pardo, 2017: 12)

Urritasunak lantzen diren narrazioei esker, berdintasun eza pairatzen duten pertsonai horien egoera ulertzeko, eta egunerokotasuneko egoeretan parte hartzeko aukerak eskaintzen dizkigute (Encabo, 2003: 5). Hala ere, urritasunak ulertzea ez da kontu erraza izaten, batez ere adin txikikoetan. Hori dela eta, literaturak eskaintzen duen aukera baliatzea lagungarria izan daiteke (Turkington & Harris in Encabo, 2003: 5).




3.irudia: El caso de Lorenzo (Carrier, 2010)

1.6. Urritasunak lantzearen garrantzia Haur Literaturan

Literatura gizarte heterogeneoa erakusteko elementu baliagarria izateaz gain (Vara & Vila, 2016: 168) ezgaitasunen errealitatea islatzeari ekin dio, hura pairatzen duten pertsonaien bizipenak eta egunerokotasuna islatuz eta ingurugiroaren laguntza azpimarratuz (Cano de la Cuerda, Collado-Vazquez & Jiménez-Antona, 2013: 175).

No se trata de una mayor visibilización sin más se trata de conseguir trasladar una imagen de la discapacidad ajustada a la realidad, libre de estereotipos y prejuicios, descontaminada de paternalismos, exenta de connotaciones negativas. Una imagen en definitiva, que no vulnere los derechos fundamentales de las personas con discapacidad” (Balas, d.g.: 316).

Horrez gain, ezgaitasunak dituzten pertsonen integrazioan lagungarria izan daiteke Haur Literaturaren papera, izan ere dibertsitateaz ohartarazten gaitu diskriminazio egoerak edo zailtasunak dituzten pertsona edo ikasleekin enpatia izaten laguntzen. Gainera, kontzientzia soziala garatzen laguntzen du, bai eta sinesmen, jarrera edo uste okerrak aldatzen ere. Laguntzeaz gain, gure jarrerak izan dezakeen eragin negatiboaz ohartarazten gaitu, jarrera positiboen onuraz jabetzen garen bitartean (Vara & Vila, 2016: 166).



4.irudia: Por cuatro esquinitas de nada (Ruillier, 2005)

Porras Navalónek (d.g.: 1) ezgaitasuna ulertzeko ipuinen eraginaz jardun zuen. Ipuinei esker, protagonistarekin empatia handia garatzen da, landutako haur errealitatera igarotzeko aukera emanez. Horrez gain aniztasuna eta errealitatea onartzeko eta ulertzeko baliabide aberasgarria da, bai eta gurasoek zein irakaskuntza arloko profesionalek gai desberdinak jorrazteko materialak ere. Trataera aproposa duten irakurgaiak esker dibertsitatea, errespetua eta tolerantzia sustatzen dira. Ezezagunak izan daitezkeen ezgaitasunak ezagutzeaz gain errealitate ezberdinen aurrean sentsibilizazioa lantzeko aukera paregabea eskaintzen dute.

Ezgaitasunak orain dela gutxira arte ezkutuan egon den gaia izan da gizartean. Ezgaitasuna zuen pertsonaren diskriminaziorako lehenengo urratsa etxean bertan zuen. Hori dela eta, Literaturari esker, beste begirada batekin gerturatu gaitezke gaira, ezezagunaren inguruan ditugun mugak gaindituz, ezgaitasunak duen konotazio negatibotik ihes eginez eta estereotipo negatiboak baztertuz (Balas, d.g.: 316).

1.7. Urritasunak ulertzeko modua

Urritasunak ulertzeko moduz jardun baino lehen, OMSeK *Clasificación Internacional del Funcionamiento de la discapacidad y de la Salud (CIF)* ematen dituen definizioei erreparatzea komenigarria da.

Desgaitasuna.- “Es el término genérico que engloba todos los componentes: deficiencias, limitaciones en la actividad y restricciones en la participación. Expresa los aspectos negativos de la interacción entre un individuo con problemas de salud y su entorno físico y social.

- Urritasun.- “Son problema sen las funiones fisiológicas o en las estructuras corporales de una persona. Pueden consistir en una pérdida, defecto, anomalía o cualquier otras desviación significativa respecto a la norma estadísticamente establecida”.
- Jardueretan mugak.- “Son las dificultades que un individuo puede tener para realizar actividades. Estas dificultades pueden aparecer como una alteración cualitativa o cuantitativa en la manera en que la persona desempeña la actividad en comparación con otras que no tienen un problema de salud similar”.

- Murrizketa parte hartzean.- “Son problemas que una persona puede experimentar al involucrarse en situaciones vitales, tales como relaciones interpersonales, empleo, etc. En el contexto real en el que viven. La presencia de una restricción en la participación viene determinada por la comparación de la participación de la persona con discapacidad con la participación de una persona sin discapacidad en una situación análoga o comparable”.

Iturria: Clasificación Internacional del Funcionamiento, de la discapacidad y de la Salud (CIF). oms, 2001 (in García Marín, 2006: 248)

Urteetan zehar ezgaitasuna modu desberdinetan islatu eta aurkeztu da. Baztertze egoera batetik gizarteko partaide izatera arte (Seoane, 2011: 144).

Ezgaitasunak definitzeko erabiltzen ditugun hitzek ideia zein kontzeptu zehatz batzuei zuzenki loturik doaz. Kulturalki onartuak izan diren zenbait balore islatzen dituzte eta balore hauek denboran zehar transmititu izan dira hitza gidari moduan dualarik. Espainian gehien erabiltzen den hitza *Minusvalido* izango litzateke, hitza zatituz gero *menos valido* esanahia lortuz (Romañach & Lobato, 2005: 1).

DISCAPACIDAD
DI CAPACIDAD

5.irudia: Mallko y papá (Gusti, 2014)

Ez- aurrizkiak kontzeptuarigabezi bat eransten dio. Beraz, ezgaitasuna duten pertsona horiei gehiengoak duen zerbaiten falta dute.

La discapacidad es concebida, en general y por la gran mayoría de las personas, como la consecuencia de una deficiencia fisiológica que padece, a título personal, un ‘individuo’. La discapacidad, por tanto, remitiría a un substrato fisiológico y expresaría una situación individual (Rodríguez & Ferreira, 2010: 292).

Gaur egun, dibertsitate funtzionala nabarmendu den terminoa izan da. Terminologia honek erreferentzia egiten dio gizartearen gehiengoaren era ezberdin

batera aritzen den pertsonari (Romañach & Lobato, 2005: 4), *ezgaitasun* terminoak nabarmentzen duen gabezia alboratuz (Rodríguez & Ferreira, 2010: 294).

Palacios & Romañachek (in Colevivo Ioé, 2013: 35) ondorengo diote dibertsitate funtzional terminoaren inguruan:

Las personas con diversidad funcional pueden contribuir a la comunidad en igual medida que el resto de mujeres y hombres sin diversidad funcional, pero siempre desde la valoración y el respeto de su condición de personas diferentes. (...) Este modelo reivindica la autonomía de la persona con diversidad funcional para decidir respecto de su propia vida, y para ello se centra en la eliminación de cualquier tipo de barrera, a los fines de brindar una adecuada equiparación de oportunidades.

1.8. Urritasunak gaur egun

Argi eta garbi uzten dute Jiménez Larak eta Huete Garcíaek (2010: 165) haien lanean ezgaitasunaren kontzeptua konplexu zein eztabaidagarria dela.

EDAD2008-ari^{*1} dagokionez, Espainian ezgaitasunen bat duten 3.847.9000 biztanle bizi dira etxebizitza arruntetan eta zentruetan bizi diren beste 269.400 gehituta,

Lau milioi pertsona inguru izango lirateke ezgaiak, hau da, gizartearen %9a. 0-16 urte bitarteko haur-gazteen kopurua 145.000koa izango litzateke. Espainiako 3 milioi etxebizitza inguruan (etxebizitza guztien %20a) bizi da gutxienez ezgaitasuna duen pertsona bat (Jiménez Lara & Huete García, 2010: 167: 169).

EDAD2008: Encuesta de Discapacidad, Autonomía personal y situaciones de Dependencia.

1999 eta 2008 urte tarte horretan, ezgaitasunak dituzten biztanleen portzentaia murriztu da, %8,9a izatek gizartearen %8,3 izatera. Horrez gain, 0-1 urteko haurren ezgaitasuna izateko portzentaia ere nabarmen murriztu da azken aldian. Kantitate hauetan 64 urtetik gorako biztanleen egoera ezagutaraztera eman beharra dago, izan ere, normalean, adinaren ondorio gisa ulertzen dituzte ezgaitasunak eta, beraz, ez dira multzo honetan sartzen ez baitute ezgaitasuna ezagutzen (Colectivo Ioé, 2013: 36).

Ezgaitasunaren sailkapen bat eginez ondorengo taldeak izango lirateke kopuru handienekoak 6 urtetik gorako pertsonetan: mugikortasunarekin erlazionatuak (biztanleriaren %6ean eragina), etxeko bizitzan eragina duena (%4,9a) eta norberaren zaintzan eragina duena (%4,3). Ezgaitasuna duten biztanle erdiak baina gehiagok egunerokotasunean mugak izaten dituzte hiru arrazoi hauetako batengatik (Jiménez Lara & Huete García, 2010: 169).

Urritasun nabariak hezur eta giltzaduretan eragina dutenak (%39,3), entzumen urritasunak (%23,8), ikusmen urritasunak (%21) eta mentalak (%19) dira (Jiménez Lara & Huete García, 2010: 169).

Sei urtetik gora ezgaitasunak dituzten haurren %74ak (2,8 milioi) zailtasunak izaten dituzte egunerokotasuneko ekintza arruntak burutzeko. Kopuru horren erdiak ezin izango ditu laguntza gabe burutu (Jiménez Lara & Huete García, 2010: 170).

Diskriminazio egoerei dagokionez, %81ak bere burua, ezgaitasunen bat izategatik, diskriminazio egoera batean ez duela ikusi baieztatzen du; %7,6a noizbait diskriminatua sentitu da; %2,5a maiz eta gainontzeko %1,1ak etengabe (gainontzeko partaideek ez zuten erantzun nahi izan diskriminazio egoeren inguruan) (Jiménez Lara & Huete García, 2010: 173). Ezgaitasunen bat duten 65 urteko pertsonen laurden bat diskriminatua sentitu izan da bere ezgaitasunarengatik, heren bat askotan edo une oro. Hala ere, %9ak soilik salatu du egoera (Colectivo Ioé, 2013: 38). Tobosok (2010: 213) ondorengoa dio erlazio sozialen inguruan:

Además de la familia, uno de los pilares básicos del apoyo informal para la juventud son los amigos, como grupo de iguales con los que compartir experiencias y madurar personal y socialmente. Sin embargo, aunque la mayoría de jóvenes con diversidad funcional afirman sentirse apoyados por la familia, son muchos los que expresan sus dificultades para ser aceptado en el grupo de pares y en las relaciones sociales. La encuesta EDAD revela que un 48,8% de jóvenes con diversidad funcional se ha sentido discriminado en el ámbito de las relaciones sociales (43% mujeres, 52,3% hombres).

Diskriminazio egoera hauetan sakontzeko asmoz ondorengo datuak jaso ziren. Ezgaitasunak dituzten 65 urteko gorako gizon-emakumeen %10ak ez du gertuko lagunik. Portzentaia hauek bikoiztu egiten dira erlazio pertsonalak mantentzeko, komunikatzeko zailtasunak edo arazo mentalak dituzten horietan. Beste muturrean, hezur zein artikulazioetan, entzumenean edo ikusmenean arazoak dituzten horiek egongo lirateke, hauen emaitzen arabera erlazionatzeko arazoak nabarmen gutxitzen dira (Colectivo Ioé, 2013: 38).

“Para abordar la diversidad funcional, sea muy importante no sólo adoptar medidas de carácter individual, sino modificar el contexto social que convierte las diferencias y limitaciones en exclusión social” (Colectivo Ioé, 2013: 44).

Aguadok eta Roherrek (in León, Flórez & Alcedo, 2004: 667) azpimarratu zuten moduan: “En el momento actual y en las sociedades más desarrolladas, las actitudes colectivas imperantes aún tienen mucho de negativo y peyorativo. Ammerman eta Soderek (in León, Flórez & Alcedo, 2004: 667) ondorengo gehitu zuten: “Suelen estar cargadas de prejuicios y mitos falsos que hacer ver a la persona con discapacidad como inferior, incompetente, incapaz e inaceptable”. Borobiltzeko, Rodríguez-Bailón & Moyak (in León, Flórez & Alcedo, 2004: 667) ondorengo adierazi zuten: “Prejuicios y estereotipos que encajan dentro de las denominadas concepciones estigmatizantes que discapacitan más que la propia discapacidad y que justifican el mantenimiento de ciertas actitudes”.

Aurreiritzi eta estereotipoen inguruan Siperstein, Norins, Corbin eta Shriverek (in León, Alcedo & Arias, 2008: 697) ondorengo gehitu zuten:

La integración de estas personas es un proceso social complejo en el que intervienen agentes y estamentos muy variados, cuyas actitudes pueden suponer obstáculos más importantes para la inclusión en la comunidad que los derivados de la propia situación de deficiencia.

Sinesmen hauek ez dira norberaren esperientzia pertsonaletik edota hausnarketatik eratorriak. Guztiz kontrakoa, gizartetik eskuratzen ditugu, entzuten eta ikusten dugun horretatik. Gizarteak, oro har, ezgaitasunaren inguruan transmititzen duen irudia norbanakoak barneratzen du (Vega & Martín, 1999: 111). Ferrések (in Vega & Martín, 1999: 112) ondorengo esan zuen estereotipoen inguruan: “el estereotipo, bajo la apariencia de pretender ayudar a la comprensión de la realidad, contribuiría a su confusión, a la perpetuación del equívoco. (...) bajo la apariencia de información, desinforma”.

Hori dela eta, jarrera, balore eta sinesmenetan jardutea beharrezkoa da ezgaitasuna duten pertsonen integrazioa bermatu ahal izateko (León, Alcedo & Arias, 2008: 697). Integrazioaren beharra ulertzeko Freirek (in Cardona & Ortells, 2012: 106) ondorengo azaldu zuen:

Nos constituimos como personas en relación con los demás, actuando sobre la realidad en interacción con otros hombres y mujeres, con la comunicación, con el intercambio de significados entre conciencias, hecho que nos permite ir modificandonos, cambiar, crecer, ser más.

Beraz, modu honetan ulertuta, komunitatetik baztertua izateak bizitzako berezko elementuak galtzea dakar eskutik (Cardona & Ortells, 2012: 106). Vigotskik in (Cardona & Ortells, 2012: 107) era honetan laburtu zuen ikaskuntza prozesuaren funtsa: “Los procesos psicológicos internos que constituyen el aprendizaje solo pueden operar ‘cuando el niño está en interacción con las personas de su entorno y en cooperación con sus semejantes’”.

IKERKETA:

Ikerketa bi multzo desberdinetan sailkatuta dago. Batetik, zoriz aukeratutako 50 irudi libururen analisia egongo litzateke, zeinaren bidez urritasunen presentzia aztertuko den. Bestetik, bigarren multzoan, dibertsitate funtzionala lantzen dituzten (ipuin espezifikokoak) irakurgaien analisi sakona egongo litzateke, aldeztatik planteatutako hipotesiak baieztatzeko zein ezeztatzeko eta, bide batez, bertan gaiaren inguruan egiten den trataera aztertzeke.

2.1. METODOLOGIA:

Ikerketari hasiera eman baino lehen zenbait hipotesi egin ditut, zeinak ikerketa amaitzerakoan erantzun bat jasoko duten.

Lehenengo hipotesia honako hau da: Espezifikokoak ez diren liburuetan urritasunen bat duten pertsonaien ehunekoa oso baxua izango dela, eta agian, zoriz aukeratutako 50 irudi liburu sortan ez dagoela bat ere ez. Igarren hipotesia zer izango litzateke, ikusmen urritasuna izando dela gehien agertuko dena.

Ikerketaren bigarren atalean urritasunak jorratzen dituzten liburu espezifikokoak aztertuko diren neurrian, hauen inguruko zenbait hipotesi zerrendatu ditut:

1. Ezgaitasuna duen pertsona ezgaitasunarekin erlazionatutako egoera bakarrean agertuko da.
2. Narratzaileak ez du urritasunik izango, hau da, urritasuna duen pertsonaren historia 3.pertsonak kontatuko du.
3. Ezgaitasuna duen pertsonaren aurkezpena egitean urritasuna nabarmentzen den aspektua izango da.
4. Ezgaitasuna duen pertsona egoera integratzaileetan agertuko da.
5. Ezgaitasunaren inguruko informazioa era erreal batean aurkeztuko da, egunerokotasuna era erreal batean azalduz.

6. Ezgaitasuna duen pertsonaren indarguneak nabarmenduko dira.
7. Lantzen den ezgaitasunaren inguruan irtenbideak, tratamenduak eta laguntzak erakutsiko dira.
8. Ezgaitasuna duten haurren ongizatea hobetzen lagunduko dute.

A CORPUSA AUKERATZEKO KRITERIOA:

Ikerketaren lehenengo atal hau aurrera eraman ahal izateko Langile Ikastolako liburutegiko liburuak erabili ditut. Zoriz aukeratutako liburuak diren arren kriterio batekin aukeratutakoak izango direlakoan aukeratu ditut. Hain zuzen ere, liburu hauek erosterako orduan, nolabaiteko kalitatea izango duten zenbait irizpide jarraituko dituztela. Izan ere, ikastetxe bateko liburutegiak, balore literarioari garrantzia emateaz gain balore hezitzailearen pisua nabarmendu nahiko duela pentsatzen dut.

Corpusa, 50 liburuz osatua geratu da (ikus 1go eranskina) eta hauek aztertzeke fitxa bat (ikus 2.eranskina) erabiliko dut, hain zuzen ere, urritasunek duten presentziaz jabetzeko. Zoriz aukeratutako irudi liburuak diren arren, 6-12 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta dauden ipuinetara jo dut, eta bertan, haiek eskuragarri (altuerarengatik) dituztenak aukeratu ditut.

B CORPUSA AUKERATZEKO KRITERIOA

Analisiaren bigarren atal hau osatzeko Donostiako Haur Saileko liburutegietako liburuak erabili izan ditut. Horretarako, autore desberdinek zenbait lanetan proposatutako irakurgaiak baliatu ditut (ikus 3.eranskina), beti ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapara bideratutakoak. Autore hauen proposamenez gain, liburutegian bertan proposatutako irakurgaiak ere baliatu ditut.

Corpusa 37 liburuz osatuta dago (ikus 4.eranskina) eta hauen azterketa egiteko Monjas eta Gonzalezek (1997) egindako fitxa ikerketaren beharretara moldatu dut (ikus 5.eranskina).

EMAITZAK

A CORPUSEKO DATUAK:

Datu hauek alderatzeko (ikus 6.eranskina) aztertutako irakurgai bakoitzaren fitxa osatuta dago. Bertan, dibertsitate funtzionalaren presentzia aztertuko da, bai eta mota desberdinen presentzia ere. Gainera, zehaztuagoa agertuko da protagonistek edo bigarren mailako pertsonaiek pairatzen duten dibertsitate funtzionala, nahiz eta datuen azalpenean adierazgarria ez izan.

Ondorengo grafikoan (ikus 2.grafikoa) zoriz aztertutako 50 irudi liburu hauetan dibertsitate funtzionalaren presentzia ikus daiteke, urritasunek %20ean soilik lekua dutelarik. Hala ere, hurrengo grafikoan, dibertsitate funtzional mota desberdinak ikus ditzakegu (ikus 3.grafikoa), zeinaren bidez bataurrekodun eta denbora zehatzeko dibertsitateak baztertu ditzakegu azken grafiko bat lortuz (ikus 4.grafikoa). Laugarren grafikoan, beraz, aztertutako irudi liburuetan agertzen den dibertsitate funtzionalaren kopurua ikus dezakegu. Normaltasunez tratatzen diren horien artean gehien ikusten dena ikusmenean oinarritutakoa da. Hain zuzen ere, dibertsitate funtzionala jorratzen duen %20 horretan, 7 irakurgaiak ikusmen urritasunaren inguruko galerak islatzen dituzte. Aztertutako irudi liburuen artean bataurrekodun pertsonaiak nabariak izan dira, nahiz eta haien ikusmen arazoa landu ez. Agertu izan diren beste dibertsitate funtzional mota batzuen artean, adibidez, muletak erabiltzen zituen eta gorputz atal bat faltan zuen pertsonaiak agertu dira. Vicent Cuvellieren *La guerra de almohadas más grande del mundo* irakurgaietan muletak behar zituen haurrak gainontzeko hurrekin egunerokotasuneko ekintza guztiak aurrera eramateko gaitasunarekin irudikatu dute, bai eta, etorkizun labur batean sendatuko denaren ideiarekin. Gorputz atalak faltan zituenak, berriz, gorputz atal guztiak lortu arte hilda egongo balitz bezala mantenduko zela irudikatu dute. Bigarren honetan ere, arazoari irtenbidea etorkizun oso laburrean emanez.

Aipatutako urritasunez gain, Miren Asiain Loraren *Hara!* Irakurgaietan, gurpildun aulkian eserita bigarren mailako pertsonai bat agertu da, nahiz eta honen


inguruan ezer ez esan eta istorioan eginkizunik ez izan. Hala ere, dibertsitate funtzional horrek presentzia izateak normaltasun kutsua eman dio irakurgaiak urritasunen inguruan duen trataerari.



2.grafikoa: Dibertsitate funtzionala hasieran



3.grafikoa: Dibertsitate funtzional motak



4.grafikoa: Dibertsitate funtzionala azterketa ostean

A CORPUSEKO ONDORIOAK:

Aldez aurretik azaldutako datuetan ikus daitekeen moduan (ikus 1go irudia), zoriz hautatutako liburuetan urritasunen presentzia txikia da, hain zuzen ere %4koa soilik. Beraz, planteatutako lehenengo hipotesia zuzena dela esan dezaket. Hipotesia

baieztatzeaz gain dibertsitate funtzionala duten hurrek literaturan identifikatuta sentitzeko dituzten baliabide mugatua nabarmendu dezakegu.

Bestalde, bigarren hipotesiari dagokionez, ikusmen urritasuna izan da gehien nabarmendu den urritasuna, beraz, bigarren hipotesia ere onartu dezakegu. Hala ere, ikusmen urritasunaren lehenengo faseak soilik ikusarazten dira, zailtasun minimo bat betaurrekoen bidez adieraziz. Azterketa honen ostean esan dezakegu dibertsitate funtzionalak barnebiltzen dituen mota guztietatik ikusgarritasun handiena duten horiek soilik erakusten direla. Gainera, erakusten diren arren, ez da honen inguruko tratamendurik ez eta ikaspen berezirik ematen.

Horrez gain, antzeman dezakegu, gizartean, oraindik, ezkutuan dabilen gai bai dela. Dibertsitate funtzionala normaltasunez ikusteko bidea eraikitzen ari den arren, irakurgaien protagonisten aniztasun eza nabaria da oraindik ere.

B CORPUSEKO DATUAK ETA ONDORIOAK:

Bigarren atal honek ere alderatzeko aukera eskainiko du (ikus 7.eranskina). Hipotesi bakoitza item bat izango da eta nire iritzia aintzat hartuz baieztatu edo ezeztatuko dut, ondorengo ataletan esaldi adierazgarrien bidez arrazoituz.

Bigarren atal honen sakontasuna dela eta, hipotesiak berreskuratu eta banan-banan baieztatu edo baztertuko dira, horretarako zenbait adibide eskainiz.

1. Ezgaitasuna duen pertsona ezgaitasunarekin erlazionatutako egoera bakarrean agertuko da.

Irakurgaien azterketa egin osteko datuei esker hipotesia baztertzea erabaki dut. Izan ere, ezgaitasuna duten pertsonaien %78,4a egoera desberdinetan aurkezten da,

urritasunarekin erlazionatutako egoera bakarra alboratuz. Beraz, hasiera batean planteatutako hipotesia ezeztatu dezakegu.

2. Narratzaileak ez du urritasunik izango, hau da, urritasuna duen pertsonaren historia 3.pertsonak kontatuko du.

Aztertutako irakurgaiak %91,9ak ez du urritasuna duen narratzaile bat izango. Hain zuzen ere, %8,1an, soilik, urritasuna duen pertsoniak kontatuko du bere istorioa lehenengo pertsonan, bere sentimenduak adieraziz. Gainontzeko guztietan 3.pertsonan kontatutako kontakizunak dira.

Gutxiengo horretan, %8,1an, honako ipuinak aurki ditzakegu: *Ruidos y silencios*, *35 kilos de esperanza*, *Zimurrak* eta *Arroza eta tinta*. Guztia hauetan urritasuna lehenengo pertsonan tratatzen da, protagonisten beldurrak, sentimenduak zein nahiak edota ekintzen zergatiak azalduz.

Datu hauek ezagututa, hasieran planteatutako hipotesia baieztatu dezakegu. Izan ere, pertsonaien kopuru txiki batek kontatzen du bere historia lehenengo pertsonan. Dibertsitate funtzionalak Haur eta Gazte Literaturan lekua hartu duten arren familiak edo lagunak kontatzen dute haien historia, ahotsa ‘kentzen’ diote protagonistei. Dibertsitate funtzionala duen pertsona hori nire laguna, arreba edota alaba da, baina oso gutxitan irakurriko dugu ni naiz dibertsitate funtzionala duen hori.

Errealitatea islatzen duten istorioak diren arren, beharrezkoa izaten da benetako protagonisten ahotsa entzutea, sentitzen dutena ezagutzeko, guztiz identifikatua sentitzeko.


3. Ezgaitasuna duen pertsonaren aurkezpena egitean urritasuna nabarmentzen den aspektua izango da.

Idazleen %89,2ak urritasuna nabarmentzen du pertsonaiaren deskribapena egiterakoan, horretarako “desberdin” hitza nabarmenduz %59,1arekin. Bestalde, beste zenbait hitz nabarmentzen dira, hala nola, zailtasun (%19,2), ausart (%9,1), defektu (%4,5), berezi (%4,5) eta atzeratu (%4,5).

Nahiz eta irakurgaien gehiengoek urritasuna deskribapena egiterako orduan azpimarratzeko faktore moduan ikusi, badira zenbait irakurgai zailtasuna nabarmentzen dutela urritasunean sakondu gabe, haien zuzen ere % 16,2ak. Horren adibide dira, hain zuzen, Jérôme Ruillieren *Por cuatro esquinitas de nada* eta Isabelle Carrieren *El caso de Lorenzo*. Bi irakurgaiak zailtasuna azpimarratzen dute protagonistak besteen desberdinak direla nabarmenduz. Hala ere, ez zaigu argi adierazten bi pertsonai hauen urritasuna.

Bestalde, irakurgaien %5,4ak irudien bidez erakusten digu pertsonaien ezgaitasuna, hitzen beharrik adierazi gabe. Honen adibide dira *Como pez en el agua* eta *Catalina, el oso y pedro*. Horrez gain, *Mi amiga tiene Síndrome de Down* irakurgaiak hitzen bidez deskribapen zehatz bat eskaintzen zaio irakurleari, begien, altueraren edota aurpegiko keinuen azalpena emanez. Nahiz eta azalpena oso zehatza izan, irudiei erreparatuz Down Síndromea ez duen lagunen tankera berdinean agertzen dira.

Datuak aztertu ostean hipotesia baieztatu dezakegu. Dibertsitate funtzionala nabarmendu nahi izan den aspektua izan da, zenbaitetan, zailtasunak nabarmendu dira guztiz argitu gabe zerren inguruan hitz egiten ari diren. Hitzak eta albumetako irudiak dibertsitate funtzionalaren deskribapena osatu dute, hitzekin irakur ezin zitekeena irudiarekin irakurriz.




5.grafikoa: Aurkezpenetan dibertsitate funtzionala nabarmentzearen portzentaiak

4. Ezgaitasuna duen pertsona egoera integratzaileetan agertuko da.

Idazleen ehuneko altuenak (%45,9) urritasuna duten pertsonaiak egoera integratzaileetan irudikatu nahi izan dituzten arren, %10,8ak baztertze egoeretan irudikatu ditu. Hala ere, pentsamendu aldaketa bat irudikatu duten irakurgaien ehunekoa ere altua izan da, %35,1a hain zuzen, zeinak pertsonaien egoera gordina integrazio egoera batean bilakatu duten.

Azterketa sakon bat egin ostean ezin dugu gehiengo batez hitz egin, hain zuzen ere, egoera integratzaileak, normalean, baztertze egoeretatik sortutakoak baitira. Nahiz eta irakurgaien amaieran dibertsitate funtzionala duten haurren egoerak integratzaileak izan, egoera latzak bizi izan dituzte istorioaren hasieran, bai eskola zein familian ere. Hain zuzen ere, irakurgaiek errealitatea islatu nahi izan dute, egoera ideala gizartearen pentsamendu aldaketa baten ostean sortuz.



6.grafikoa: Egoera integratzaileak, baztertze egoerak eta pentsamendu aldaketak

5. Ezgaitasunaren inguruko informazioa era erreal batean aurkeztuko da, egunerokotasuna era erreal batean azalduz.

Irakurgaien gehiengoak (%64,9) ezgaitasuna era erreal batean plazaratzen du. Hala ere, badira neurri txikiago batean errealitatea alboratzen duten batzuk (%35,1). Errealitatean sakontzen ez duten horietan 3 multzo egin ditzakegu: urritasunean zehazten ez dutenak (%13,5), fantasiako mundua irudikatzen dutenak (%10,8) eta azkenik errealitatea irudikatu nahi dutenak baina egoera idealegiak irudikatzen dituztenak (%10,8).

Hipotesia baieztatzen den arren, irakurgai askok ez dute gehiegi sakondu nahi izan pertsonaien bizimoduan. Zertzelada batzuk ematen diren arren urritasuna ezagutarazteko helburuarekin egiten da, ez honetan sakontzeko intentzioarekin. Hala ere, narrazioan ikus daitezkeen egoerak egunerokotasunean ikus ditzakegunekin antz handia dute.


6. Ezgaitasuna duen pertsonaren indarguneak nabarmenduko dira.

Urritasunak zailtasun moduan irudikatzen diren arren, irakurgaien %91,9ak pertsonaien indarguneak nabarmentzen ditu zailtasun horien gainetik. Pertsonaien %20ari urritasunaren ondorioz garatu dituen zentzumenak nabarmentzeko aspektutzat baliatzen dira, %26,7a ausart moduan irudikatzen dira eta %56,3ari arlo zehatz batean dituzten abileziak azpimarratzen zaizkie.

Irakurgai gehienetan indarguneak azpimarratzen diren arren, badira zenbait irakurgai (%8,1) pertsonaien ahulguneak soilik nabarmentzen dituztenak, errealitate gordina irudikatuz. Horren adibide da *Zimurra* komikia, non adimen funtzioaren galera duten horiek “gizarteko traste inutil” edo “traba” moduan irudikatzen dituen.

Hipotesia baieztatu dezakegun arren, dibertsitate funtzionala era negatiboan ikusten denez pertsonaiaren alderdi positiboak kontzeptuak duen karga negatiboarekin konpentsatu nahi izaten da. Horretarako, zenbaitetan, pertsonaiak idealizatu egiten dira,

superheroien antzera irudikatuz eta historiak izan dezakeen errealitatearen kutsua alboratuz.




7.grafikoa: Indarguneak nabarmentzearen portzentaia eta nabarmentzen diren aspektuen laburpena

7. Lantzen den ezgaitasunaren inguruan irtenbideak, tratamenduak eta laguntzak erakutsiko dira.

Aztertutako irakurgaien %64,9ak jorratzen den ezgaitasunaren inguruan irtenbideak, tratamenduak edo laguntzak eskaini ditu, irakurketa hezigarria bilakatuz. Gainontzeko liburuetan (%35,1) ezgaitasuna ezagutzera eman da, haur eta gazte literaturan presentzia hartuz, nahiz eta honen inguruan laguntzak eskaini ez.

Eskainitako laguntzen artean inguruko laguntza orokorra da gehien nabarmentzen dena (%23,1), hain zuzen ere, urritasuna duen pertsonaiaren beharretara egokituko dena. Bestalde, eskolaren papera nabarmentzekoa da ere, irakurgaien %17,9ak eskola bereziaren papera nabarmendu nahi izan du, izan ere, zenbait ezgaitasun era egoki batean tratatzeko jakintza zein baldintza zehatz batzuk behar dira. Medikuek eskaini ditzaken irtenbideek (%15,4) eta egunerokotasuna errazteko laguntzek (%15,4) presentzia hartzen dute irtenbideen artean.

Nahiz eta laguntza ugari eskaini, onarpenak presentzia izatea lortu du irakurgaien artean, %12,8ak honen inguruan jarduten duelarik. *Mallko y papa* irakurgaiari jaso dezakegun moduan; “Aceptar es recibir voluntariamente y con agrado lo que se nos ofrece” (Gusti, 2014).




6.iruda: Mallko y papá (Gusti, 2014)

Laguntza hauetaz gain, neurri txikiago batean ohitura osasuntsuak (%2.6), estrategiak (%5,1) eta kontzientzia sorrarazteko irakurgaiak proposatzen dituen jarduerak agertzen dira (%5,1). Azken jarduera hauek, hala nola, *Sofia la folondrina* irakurgaietan topa ditzakegu.

Azkenik, presentzia gutxi duen arren (%2,6) gizartean sorrarazi beharreko perspektiba aldaketak leku bat izan du irakurgaien artean. *Por cuatro esquinitas de nada* ipuinean irakur daiteke “no es cuadradito el que tiene que cambiar, es la puerta”, gizarteari eta ezgaitasunak ikusteko moduari erreferentzia eginez.

Irakurgaien gehiengoak lantzen den dibertsitate funtzionalaren inguruan trataera, irtenbide edota laguntza desberdin bat eskaintzen du. Dibertsitatea istorioaren protagonista den neurrian, inguruko jarrerak ‘positiboak’ direlakoan transmititzen dira, nor edo nork egoera hori bizi badu laguntza moduan eskaintzeko asmoz. Horrez gain, landutako zenbait liburuk helburu hezitzailea duten neurrian, dibertsitate funtzionalean sakontzeko asmoz, zenbait jardura proposatzen ditu, bai eta pertsona hauen lekuan jartzeko zenbait aholku ere.



8.grafikoa: Irakurgaietan gehien nabarmentzen diren tratamendua

8. Ezgaitasuna duten haurren ongizatea hobetzen lagunduko dute.

Aztertutako irakurgaien gehiengoak irakurlearen, eta batez ere urritasuna duen haurraren, ongizatea bilatzea helburu duela esan nezake. Hala ere, topa ditzakegun esaldiak direla medio %83,8ak soilik lortzen duela esan genezake, %8,1ak ongizatea bermatzen ez duen bitartean eta gainontzeko irakurgaiak sailkatzeko zailtasunak sorrarazten diren neurrian.

Sailkatzeko zailtasunak erakusten duten horien interpretazioa zailtzen duten zenbait faktore agertzen dira, besteak beste, hitz edo esaldi zatarrak, identifikatuak sentitu daitezkeen egoera gogorregiak, ezgaitasunaren inguruko alderdi negatiboak erakustea eta ondoren horren inguruan lanketa handirik ez egitea edo eta irakurgaiak berak desberdintasun zentzugabeak ezartzea.

Azken hipotesi hau guztiz baieztatzea zaila iruditzen zait. Izan ere, dibertsitate funtzionala duen kolektibo honen baztertze egoerak era gordin batean transmititzen diren zenbait libururen azterketa egitean identifikazio negatibo bat gerta daiteke. Beste muturrean, idealegiak diren istorioak egongo lirake, zeinak errealitatea transmititzen ez duten. Bi mutur hauek ongizatea bermatzen ez dutela esango nuke.

Hala ere, badira ongizatea bilatzen duten ipuinak, zeinak errealitatea islatzen duten, dibertsitate funtzionala bizitzaren atal moduan ikusiz eta ez besteetan bezala oztopo moduan. Protagonistak osotasunean hartzen ditu aintzat, eta ez soilik dibertsitate funtzionalaren inguruko aspektuetan.

ONDORIO OROKORRAK

Ikerketaren hasieran planteatutako hipotesiez gain aipatutako irakurgaien analisiak zein gaiaren inguruan landutako testuek zenbait ondorio orokor lortzera bideratu naute. Izan ere, orain arte gehiegi landu ez den gai baten inguruan ikertzeak zenbait abantaila eta beste horren beste desabantaila ditu.

Batetik, aipagarria den aspektua informazio iturriak dira. Badira gai tabuen inguruan ikertu duten zenbait autore eta urritasunak aipatu dituztenak, beste zenbaitek, urritasunak barneratzen dituzten irakurgaiak proposatzen dituzte, eta beste askok dibertsitate funtzionalaren terminora iritsi arteko ibilbidea jorratzen dute. Hala ere, autore gutxik landu dute orain arte dibertsitate funtzionalaren trataera Haur eta Gazte Literaturan. Beraz, zaila izaten da gaien janztea honen inguruko informazioa eskasa izanik.

